

SECCIÓN AMENA

PROPIÑAK

K. Listo ta K. Tonto
 chit lagun aundiak
 asiziran izketan
 esanik berriak.
 —Mandatuba egitian
 beti nagusiak
 chanpon bat edo beste
 bai, ematen ziak.

—Arrazoi dan bezela,
 ez dek orrai gaizki.
 —Ori ez. ¿Tiriak zer
 ematen dik iri?
 —Belarriondoko bat
 batzubetan neri.
 —¡Konche! ¿ta bestietan?
 —¡A! bestietan... bi.

*
 * *

EZIÑ MERKIAGO

—¡Mutill! atzo Brechan bat
 jarririkan zuzen
 kochian, botilletan
 Ur bat zikan saltzen.
 Agiñeko miñentzat,
 guztiyak arritzen,
 usai egiñarekiñ
 berielá kentzen.

Neri kenduziakán,
 egiya esateko,
 nekarren miña, usai
 egiñ nubeneko.
 —¿Ta zenbat pagatu ukan?
 —Bada pagatzeko,
 duro bat jarri niokan
 usai egiteko.

MARZELINO SOROA.